

Donostia, 2015eko abenduaren 17a

SANTO TOMAS EGUNEKO DBUS AUTOBUS ZERBITZUA

Abenduaren 21ean, astelehenarekin, Santo Tomas eguna dela eta, Dbus-ek autobus zerbitzu bereziak eskainiko ditu erabiltzaileak garraio publikoz jai gunera erosotasunez hurbil daitezen. Gauean ere zenbait zerbitzu luzatuko dira.

Aurten Bulebarreko geltokietan ez dira aldaketak egingo.

Gipuzkoa plaza eta Okendo plaza feria-gunearen parte izango direnez, bertako geltokiak lekualdatuko dira, **7:00etatik 21:00etara** gutxi gorabehera.

-14. Bidebieta eta 37. Rodil- Zorroaga, bukaera geltokia Askatasun hiribidea 7an izango dute.

-16. Igeldo eta 18. Apaizgaitegia lineek azkeneko geltokia Askatasun hiribidea 20an izango dute (36 linearen geltokia, Txurruka kalearekin duen kale-kantoiari).

9:00etik 21:00etara gutxi gorabehera honako aldaketa hauek egingo dira:

-5.Benta-Berri, 25.B-Berri-Añorga, 21.Mutualitateak-Anoeta, 26.Amara-Martutene eta 28.Amara-Ospitaleak: Argentinako Errepublikaren pasealekutik Bulebarrerantz joango dira. Okendo kaleko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

-8.Gros-Intxaurrondo: Galtzara Nagusitik-Zurriolatik joango da Bulebarrerantz. Kolon pasealekua eta Askatasunaren hiribidea 6 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

-9.Egia-Intxaurrondo: Argentinako Errepublikaren pasealekutik Bulebarrerantz joango da. Askatasunaren hiribidea 6 geltokia zerbitzurik gabe geratuko da.

Halaber, **ondorengo lineen zerbitzuak luzatuko dira:**

- **9-Egia-Intxaurrondo:** Boulevardetik 23:30ean eta 00:00etan. B3-Egia-Intxaurrondo gautxoriaren ibilbide bera egingo du.

- **13-Altza:** Boulevardetik 00:10ean.

- **19-Aiete:** Boulevard 19 geltokitik 23:00etan eta 00:00etan.

- **23-Errondo-Puio:** Boulevard 19 geltokitik 22:30ean eta 23:30ean.

- **25-Benta Berri-Añorga:** Boulevardetik 23:15ean eta 00:00etan. Beriotik joango da eta B1-Benta Berri-Berio-Añorga gautxoriaren ibilbide bera egingo du.

Jende guztia Santo Tomás egunean Dbus-en autobusak erabiltzera animatu nahi dugu, garraio jasangarri eta eraginkorra.

Gozatu jaiaz lasaitasun osoz, mugitu Dbusekin!

Informazio gehiagorako, kontsultatu gure webgunea www.dbus.eus, edo deitu 943 000 200 telefonora.

